

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

[www.ehu.es/
azpidazki](http://www.ehu.es/azpidazki)



EHUREKA AHOLKUAK

25

PUNTUAZIOA





ETEN PUNTUAK

Enumerazioa edo esan nahi denaren zentzua irekia uzteko modua da.

Giza Elikadura eta Dietetikako diplomaturara lanbide-heziketatik sartzeko adarrak: Analisia eta Kontrola, Dietetika, Farmazia Produktuen eta Antzekoen Fabrikazioa, Elikagaien Industriak, Prozesu Kimikoen Industriak...

Aipuetan, osorik ematen ez direnean.

Egileak hitzaurrean dioen bezala: "Hizkuntza handien jauregietan ere sarri ikusten dira horrelako egoerak, baita frantsesaren eta gaztelaniaren jauregietan ere. Ingelesaren eragina gehiegizkoa dela, gazteriaren hizkera behar bezain jaso eta aberatsa ez dela..."

Isildu nahi duguna tartean geratzen bada, parentesi artean paratuko ditugu eten-puntuak.

1) atalean zehaztutako baldintzak betetzen ez dituzten eskabideak plazak esleitzeko aipatutako 69/2000 EDn zehaztutako araudi orokorraren menpe geratuko dira, (...) horretarako epea uztailaren 1etik 5era bitartekoa izango da. Ikasle horiei espediente berria egingo zaie 1. mailarako aurkeztutako agiriak oinarri hartuta





GALDERA IKURRAK

Galdera-ikurra galdera-esaldiaren bukaeran baino ez da idazten.
Zer egin behar dut matrikulatu ondoren?




HARRIDURA IKURRAK

Harridura-ikurra esaldiaren bukaeran bakarrik idazten da.
Pentsaraztekoa, honek esaten duena!

Harridura ez ezik, beste ñabardura batzuk adierazteko ere erabiltzen da, hala nola, agindua, kexua, etab.

Aurrera, sar zaitez Campus Birtualean!



PARENTESIA

Bidenabar zerbait aipatu nahi edo daturen bat tartekatu nahi denean erabiltzen da parentesia.

Guztira, autorearen 65 obra (54 olio-pintura eta 11 marrazki) agertu dira



MARRA LUZEA

Parentesien antzera, datu edo argibideren bat tartekatzeko marrak erabiltzen dira. Medikuntzako eta erizaintzako ikasleek ospitalean praktikak egiteko uniforme hau jantzi beharko dute: oinetako zuriak, kasaka eta prakak —eskolako iragarki-taulan agertzen den modeloa— eta osasun-zentroetako praktiketarako bata zuria



MARRATXOA



Elkarrizketetan.

- Egunon Feli. Zer, dagoeneko lanean?
- Aizu! Ezin da momentu batean egunkaria irakurri, ala?

Izen arrotzei atzizkia eransten zaienean.

The Times-etik hartutako datuak dira.
Stockholm-era joatea erabaki zuten

Lerroz aldatzean, hitzak zatituta geratzen direnean (Euskaltzaindiak hitzak silabaka zatitzea gomendatzen du; adibidez, bur-tsa, guk, lan-gi-le-rik...).

Hitz elkartuetan

Hezkuntza-sistema, barne-araudia, jaun-andreak





KOMATXOAK

Norbaitek esana edo idatzia hitzez hitz jaso nahi denean, komatxo artean jartzen da. Arturo Kanpionek, liburu honen hitzaurrean honakoa dio: "...Aberri-maitasunez sututako olerkariaren bihotz-taupadak dira olerki hauek"

Era berean, komatxo artean idazten dira lan artistikoen izenburuak, liburu eta artikuluenak, izengoitiak, beste hizkuntzetatik hartutako terminoak edo ironiazko zentzuan erabiltzen diren hitzak.

Kutxa Fundazioak "Donostia Hiria" Literatur sarien emaitzak kaleratu ditu Badakigu Kristobal Kolon Amerika "aurkitu" zuen lehena ez zela izan

